

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Uztailaren 24ko 190/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez “Kostera II” transformazio gune berriaren proiektuaren interes publikoa adierazten baita, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk sustatuta. Proiektu horren xedea da aireko linea aldatzea, lurrazpiko linea jartzea eta aurreko transformazio gunea desegitea Aiarako Kostera herrian**

Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk Aiarako Udalari eskatu dio obra lizentzia eman diezaiola honako proiektu honi: “Kostera II transformazio gune berria (901142510 zenbakia) eraikitzea eta 13,2 kV-eko, zirkuitu bakarreko eta 3’’-ko hargunedun Artziniaga-Menagarai linea aldatzea eta Costera 2 transformazio gunea (200804350 zenbakia) desegitea”; X:491.575 Y:4.772.238 ETRS89 UTM koordinatuetan, Kostera herriko lurzoru urbanizaezinean.

Aiarako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen osagai da proiektuaren sustatzailea den Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk egindako txosten teknikoa, baita udal arkitektoak emandako txostena ere, zeinetan adierazten baita aurreikusitako kokagunea lurzoru urbanizaezina dela eta trantsizioko landa paisaia kalifikazioa duela, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioetan xedatutakoaren arabera. Horrez gain, adierazi du instalazioa onura publikoko azpiegitura dela, eta hori lurzoruaren kalifikazioaren arabera onartutako erabileretako bat dela.

#### GINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta Sail honen egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berriaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Iberdrolaren proiektu teknikoan jasota dago proiektuaren xedea dela gaur egungo Kostera 2 transformazio gunearen ordeztalazio berri bat jartzea, zeinak izango baitu aireko tarte bat, transformazio gune bat (CTIC) eta aireko linearen eta CTICen arteko interkonexioa, lurpeko kanalizazio berri baten bitartez.

Transformazio gunea UTM ETRS89 (X:491.575Y:4.772.238) koordinatuek zehaztutako lekuan jarriko da, hain zuzen, Aiarako arau subsidiarioek trantsizioko landa paisaia gisa kalifikatutako lurzoru urbanizaezinean, eta aireko tarteak mendi-baso zona gisa kalifikatutako lursailen zati bat zeharkatuko du. Aireko tarte horrek lehendik dauden euste puntuak aprobetxatuko ditu (zutoinak) eta beste bi jartzea ere aurreikusi da. Azken zona horri dagokionez, 144. artikulua (“Zona bakoitzean baimendutako erabilerak eta jarduerak”) 3.b) puntuan ezarritakoaren arabera, baimenduta daude onura publikoko eta gizarte intereseko instalazioak eta azpiegiturak, baldin basoan jarri behar badira, hartuko dituen lursailari ezinbestez lotuta egon beharra duten jarduerak egiteagatik. Bestalde, trantsizioko landa paisaiari dagokionez, 144. artikulua horrek

baimendutako erabileren artean jaso ditu balio estrategiko handiko zonan aurreikusitakoak, hots, onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak, baldin landa ingurunean jarri behar badira besteak beste arrazoi zientifikoak, topografikoak eta geografikoak direla-eta aukeratutako lursailari ezinbestez lotuta egotea behar duten jarduerak gauzatzeagatik.

Ekainaren 5eko 144/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatzen da espedienteari hasierako onespena ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hain zuzen ere, espediente hori 2019ko ekainaren 14ko ALHAOn (69. zenbakia) argitaratu zen, eta zen inolako alegaziorik aurkeztu horretarako eman zen epean.

Sektore Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legeak ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa aztertutako kasuari. Izan ere, lege horren 1. artikuluan, xedearen azalpenean, xedatzen da helburua dela energia elektrikoaren hornidura bermatzea eta kontsumitzaileen beharretara egokitzea; eta, 2. artikuluan, berariaz jasotzen da energia elektrikoaren hornitzea interes ekonomiko orokorreko zerbitzua dela. Halaber, 5. artikuluan xedatzen da hornidura elektrikoari loturiko jardueretarako azpiegitura propioak onura publikokotzat jotzen dituela lege horrek, eta sistema orokortzat hartuko direla; eta 54. artikuluan, nahitaezko desjabetzearen ondorioei dagokienez, onura publikokotzat jotzen ditu energia elektrikoaren sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak, eta halakotzat hartzen ditu, orobat, arrazoi teknologikoen, ingurumen arrazoi edo energia eraginkortasunaren ondoriozko ordezteak edo aldaketak.

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dauzkadan eskumenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. - Proiektu honen interes publikoa adieraztea: "Kostera II transformazio gune berria (901142510 zk.) eraikitzea eta 13,2 kV-eko, zirkuitu bakarreko eta 3''-ko hargunedun Artziniega-Menagarai linea aldatzea eta Costera 2 transformazio gunea (200804350 zenbakia) desegitea"; X:491.575 Y:4.772.238 ETRS89 UTM koordenatuetan, Kostera herriko (Aiarako udalerrria) lurzoru urbanizaezinean, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Proiektua Iberdrola Distribución Eléctrica SAUK sustatu du.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa aitortzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsua.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**